

EXCERPTA

17. zenbakia

1987-urria

gaiak

orrialdeak

hesiodo-ren Teogonia.....	369-371
Esopo-ren Alegiak.....	372-381
Katulo.....	382-383
Greko-Euskarazko Gramatika kon- posaketa("Orixe").....	384
Definitiones, etymologiae, explicationes, e Sancti Augustini scriptis depromtae..	385-387
De vita exemplarium presbyterorum vasconum:(4)OLABEAGA.....	388
Grezia-ko Mitologia (barne-orrietako eranskina)	

Jon Gotzon Etxebarria
Gernika

GRAZIAK
αἱ Χάριτες

Jainkosa hauek ugalkortasunaren banatzaile bezala ageri dira; Beozian, Orkomenos-en gurtzen zituzten. Antxina-antxinatik beste leku batzutan ere gurtza hartzen zuten.

Gutziz jantzirik agertzen ziren eta euren tartean bazeuden neskatxa batzu, eskuetan jogailuak, loreak fruituak edo zintak zituztela. Horregatik askotan ez dira erraz bereizten musetatik edo ninfetatik. K.a.-ko V. gizalditik Atenas-en eskuetatik elkarri heldutako talde bat osotzen dute eta biluzik agertzen da euren taldea II. gizalditik aurrera. Iliasenean Grazia bakarra agertzen bada ere, Home-ro-k badakartza beste batzu: Eufrosine (pozaren adi erazpen), Talia (bizitzaren maitale) eta Aglaia (argitasuna). Guzti horregatik lasaitasunezko adizkide-tasunaren jainkosatzat agertzen dira.

Eurok, baina, hasiera batetan Horekin zer ikusia bazuten.

(Ikus: Hermann Steuding, "MITOLOGIA GRIEGA Y ROMANA" Labor, Barcelona, 1961)




HESIODO-ren TEOGONIA

[Ἐνθα σφιν λιπαροὶ τε χοροὶ καὶ δώματα καλά.

61 Πᾶρ δ' αὐτῆς Χάριτες τε καὶ Ἴμερος οἴκι' ἔχουσιν
ἐν θαλίῃς· ἔρατῆν δὲ διὰ στόμα ὄσσαν ἰεῖσαι
μέλπονται πάντων τε νόμους καὶ ἦθεα κεδνὰ
ἀθανάτων κλείουσιν, ἐπήρατον ὄσσαν ἰεῖσαι.]

68 Αἰ' τότε ἴσαν πρὸς Ὀλυμπον ἀγαλλόμεναι ὅπι καλῆ,
ἀμβροσίῃ μολπῆ· περι δ' ἴαχε γαῖα μέλαινα
ὕμνεύσαις, ἔρατὸς δὲ ποδῶν ὑπο δοῦπος ὄρωρει
νισσομένων πατέρα δν· ὁ δ' οὐρανῷ ἐμβασιλεύει,
αὐτὸς ἔχων βροντὴν ἠδ' αἰθαλόεντα κεραυνόν,
κάρτει νικήσας πατέρα Κρόνον· εὐ δὲ ἕκαστα
ἀθανάτοισι διέταξεν ὁμῶς καὶ ἐπέφραδε τιμᾶς.



ZEUS
tximistargia
jaurtikitzen.

Bertan dituzte eurek koru bikainak eta egoitza ederrak. Graziek eta Gurariak badute haiekin batera egonleku oturuntzetan. Ahotik ahots gozoa jaulkiz eztiki abesten dituzte diranon legeak eta hilezko rren ohitura gurgarriak ospatzen dituzte aire ma₁ tagarrietan.

Han zihoazten Olinpo-rantz beren ele ederraz eta jainkozko abestiez harroturik. Lur beltza durrundaz haiek abestu-ahala eta halako durunda atsegina irteten zen aitarengana zihoaztenen oinetatik. Berak agintzen bait du ortzean eta berak bait darabil ostotsa eta baita suzko tximista ere, indarrez aita Kronos menperatu zuenez geroztik. Era berean berak jarri zizkien gauzak oro zuzen hilezkorrei eta baita ohoreak ere eman zizkien (vv.:63-74)

Kronos eguzki-jainkotzat hartua izan da, Titan goitizenez ezagutua. Beraren ondoan Titanak agertu ohi dira, antxinako erdi jainkoak.

Beste jainko batzuk eta lagundurik Zeus-ek Titanak menperatu zituen eta Tartaro-ra jaurtiki. Iruntsi zituen semeak oka egitera behartu zuen Kronos bidenabar.

ΑΙΣΩΠΟΥ ΜΥΘΟΙ.

K.a.ko seigarren gizaldiaren erdi aldean bizi izan zen Esopo. Antza denez, Esopo-ren alegien zenbait idaztune umeen heziketarako erabiltzen ziren.

Esopo-k ez bide zituen den-denak idatzi; geroago batzuk ere badira. Esopo-k hitz-lauz emandakoak bada-kigu, Platon-i esker, Sokrates, giltzapean zegoela, bertsotan jartzen ahalegindu zela: "Horrexegatik alegiak eskumenean eduki eta erabiltzen nituen; hasieran Esopo-renak irakurri eta bertsotan jartzeari ekin nion." (Phedon, 61-b)

(Nik prosaz itzulitakoak, bizkaieraz garai hartan, orduan S. Antongo katekesian agertu ziren bezalaxe ematen ditut hemen nahasketarik ez sortzeko ikutuaren ikutuz. Eta, Sokrates baino apalago noski, bat ipini dut bertsoz azken aldean)

Gure artean Bizenta Mogel-ek jarri zizkigun batzuk euskaraz. Jakina, beste itzulpen batzuetan oinarriturik eta jatorrizko lanetik urrintxo, nahiz eta zertzeladarik nagusienak berdin berdin izan.

Abereak pertsonai bezala hartuta, guretzat mingarri ez diren iharduerak eta izakerak ager litezke.

Esopo-k bere alegietan sarrien aipatzen dituen abere-animalietatik hauexek aukera genitzake: lehoia, lukia, txakurra, otsoa, astoa. Eta adimenduen artean erabilienak: Zeus, Hermes, artzaina, bidaztia.

Gure egunetan Aita Santi Onaindia ari da poliki poliki, ohi duenez, Esopo-ren alegiak euskaraz, atalka, argitaratzen.

Lehenagoetatik etorri zaizkigun berrien arauera haxe aitor genezake: Olabide Biblia itzultzaileak, "Itun Berria"-ri ekin baino lehen, errazak zirela eta, Esopo-ren alegiekin hasi zen trebatzen itzulpen-lanean grekoa apurka apurka menderatu arte. Zaitegi zenak halaxe ziurtatu zidan behin.

Bestalde, Oiartzabal Martin apaizak emanda, Olabidek euskaraztutako 40 alegi ukan ditugu gure eskuetan argitaratzeko asmoz. Baina, zoritxarrez, behinolako uholdeak orri horiek eta beste hainbat euskarazko lan jakingarri eraman zizkigun S. Anton-go gordelekutik. Aita Patxi Altunak begiratu beharko luke Loliola-ko paper zaharren artean; ez dut uste eta harritzekoa izango denik, Aita Muxika-k edo besteren batek aldaki bat beren eskuetan bazuten.

I

Καρύα τις ἐν ὄδῳ περυστημένη καρπὸν ἔφερε πάλιν. Οἱ δὲ παρ-
οδεύοντες λίθοις αὐτὴν ἐβαλλον διὰ τὰ κάρυα. Ἦ δὲ οἰκτρὸν ἔφη.
Ἦ ἀθλία ἐγὼ, ὅτι οὐκ εἶμι καρπῷ μου εὐ-φραίνω, ὑπὸ τούτων δεινὰς
λαμβάνω χάριτας.

Ἦ μῦθος τοὺς ἀ-χαριστοὺς ἐλέγχει.

II

Λύκος βλέψας ποιμένας ἐσθίουσας ἐν σπηρῇ πρόβατον, ἐγγὺς προς-
έρχεται καὶ λέγει «ἡλίκιος ἄν ἦν θόρυβος, εἰ ἐγὼ τοῦτο ἐποιούην».

III

Ἦνος ὄραν λέοντος ἐν-δυσταμενος, λέων ἐνομιζέτο πᾶσι καὶ
φυγὴ μὲν ἦν ἀνθρώπων, φυγὴ δὲ ποιμνίων. Ἦ δὲ ἄνεμος βιαιότερος
πνεύσας ἤρπασεν αὐτῷ τὴν ὄραν. τότε πάντες ἐπι-δραμόντες
ξύλοις καὶ βοτάλοις αὐτὸν ἔπαιον.

Ἦ μῦθος δηλοῖ ὅτι ἐνίου τῶν ἀπαιδευτῶν τοῖς ἔξω δοκοῦντές τινες
εἶναι, ὑπὸ τῆς ἰδίας γλωσσαλγίας ἐλέγχονται.

IV

Κόραξ ἦν νοσερός, καὶ ἔλεγε τῇ μητρὶ «Μήτηρ, ἰκέτευε εἰς
τοὺς θεοὺς, καὶ μὴ δακρύει». Ἦ δ' ὑπο-λαβούσα ἔλεγε. «Τίς σε,
ὦ τέχνα, τῶν θεῶν ἐλεήσει; τίνος γάρ κρέας σὺ οὐκ ἔκλεπτες;».

Ἦ μῦθος δηλοῖ, ὅτι οἱ πολλοὺς ἐχθροὺς ἐν βίῳ ἔχοντες, οὐδ' ἐν
φίλον ἐν ἀνάγκῃ εὐρήσουσιν.

V

Πρὶςται ποτὲ κυτ' ἐσχίζον πεύκην σφήνας ἐξ αὐτῆς πρᾶττοντες
καὶ οἷς βραδίως κατ' ἐσχίζον σανίδας. Ἦ δὲ ἐδάκρυε ὀλολύζουσα
οὕτως «οὐ τοσοῦτον νῦν μέμφομαι τὴν ἀξίνην τὴν κόπτουσαν με
ταῖς χερσὶ τῶν ἀνθρώπων, ὡς τοὺς σφήνας ἐξ ἐμοῦ τρινομένους».

Δεινότερα ἐστὶ λύπη, ὅταν τις ὑπὸ τῶν συγγενῶν πάσχη, ἢ ὅταν
παρὰ τῶν ἄλλοτρῶν.

VI

Ἦ κριθὴν τοῦ ἵππου ἵππο-κόμος κλεπτῶν καὶ πωλῶν, τὸν
ἵππον ἔτριβε καὶ ἐκτένεζε ἐκάστης ἡμέρας. Ἦ λέγει δὲ ὁ ἵππος «Εἰ
θελεῖς ἀληθῶς καλὸν εἶναι με, τὴν κριθὴν τὴν τρέφουσαν με μὴ
πῶλει».

VII

Χειμῶνος ὥρα δια-λάμποντας ἡλίου, οἱ μύρμηκες ἔφυγον
τοὺς σίτους, ὑετῷ μουδαλέους. Τέτιξ δὲ λιμῶντων ἦται αὐτοὺς
τροφῆν. Οἱ δὲ μύρμηκες εἶπον αὐτῷ. «Διὰ τί τὸ θέρος οὐ συν-ἦρες
τροφῆν; Ἦ δὲ εἶπεν «Οὐκ ἐσχόλαζον, ὦ φίλοι, ἀλλ' ἔχθον
μουσικῶς». Οἱ δὲ γελᾶσαντες εἶπον «Ἄλλ' εἰ θέρους ὥραις γύλεις,
χειμῶνος ὄρχου».

Ἦ μῦθος δηλοῖ ὅτι οὐ δεῖ τινα ἀ-μελεῖν ἐν παντὶ πράγματι, ἵνα μὴ
λυτ. ἰθ. ἦ καὶ κινδυνεύσῃ.



ESOPO

VIII

Μύρμηξ διψήσας, κατ-ελθὼν εἰς πηγήν, εἰλκόςθη ὑπὸ τοῦ
ρεύματος, καὶ ἀπ-επνίγετο. Περιστερὰ δὲ τοῦτο θεασαμένη, κλιῶνα
δένδρου περι-ελοῦσα, εἰς τὴν πηγήν ἔρριψεν, ἔφ' οὐ καθίσας ὁ
μύρμηξ δι-εσώθη.

Ἰξευτὴς δὲ τις μετὰ τοῦτο τοὺς καλάμους συν-θείς, τὴν
περιστερὰν συλ-λαβεῖν παρ-εσκευάζετο. Τοῦτο δ' ὁ μύρμηξ ἔωρα-
κώς, τὸν τοῦ Ἰξευτοῦ πόδα ἔδακεν. Ὁ δὲ ἀλγίνας, τοὺς τε καλά-
μους ἔρριψε, καὶ τὴν περιστερὰν αὐτίκα φυγεῖν ἐπαίτησεν.

Ὁ μῦθος δηλοῖ, ὅτι δεῖ τοῖς εὐ-εργέταις χάριν ἀπο-διδόναι.

IX

Γεοργός τις, μέλλων κατα-λύειν τὸν βίον καὶ βουλόμενος τοὺς
αὐτοῦ παιδας πεῖραν λαμβάνειν τῆς γεοργίας, προσ-καλεσάμενος
αὐτούς, ἔλεγε· «Παῖδες ἐμοί, ἐγὼ μὲν τὸν βίον ἤδη καταλύσω ἄ-περ
δὲ μοί ἐστι ἐν τῇ ἀμπέλῳ μου κέρυπται. Ἐκεῖ εὐρήσετε πάντα».

Οἱ δὲ νομίζοντες θησαυρὸν τινα ἐνταῦθα λαμβάνειν, μετὰ τὸν
θάνατον τοῦ πατρὸς αὐτῶν κατα-σκάπτουσι πᾶσαν τὴν τῆς ἀμπέ-
λου γῆν. Καὶ θησαυρὰν, μὲν οὐχ εὐρίσκον, ἡ δὲ ἀμπελος καλῶς
σκαπτομένη, πολλα-πλασίονα τὸν καρπὸν ἔφερεν αὐτοῖς.

Ὁ μῦθος δηλοῖ, ὅτι ὁ κάματος θησαυρὸς ἐστι τοῖς ἀνθρώποις.

X

Βόες ἀμαξαν εἰλικον. Τοῦ δὲ ἄζονος τρίζοντος, ἐπιστραφέντες
ἔβασαν οὕτως πρὸς αὐτόν· «ὦ οὗτος, γῆμῶν τὸ ὄλον βάρος φερό-
ντων, σὺ κέραχας;»

Οὕτω καὶ τῶν ἀνθρώπων ἔνιοι, μοχθούτων ἐτέρων, αὐτοὶ προσ-
ποιοῦνται κάμνειν.

XI

Ποιμὴν μικρὸν λόκον εὐρύων ἐθρέφατο, εἶτα σχύμιον γενόμενον
ἔδίδαξεν ἀρπάζειν ἐκ τῶν σύνεγχυς ποιμνίων. Ὁ λόκος δὲ διδαχθεὶς
ἔφη· «Ὅρα μὴ πως σὺ ἐθίσας με ἀρπάζειν πολλὰ τῶν σεαυτοῦ
προβάτων ζητήσης.»

OARRAK:

ἤρπασεν: aor. -ἀρπάξω

ἐπι-δραμόντες: aor. bigarrana part ἐπι-τρέχω

εὐρήσουσιν: etork. -εὐρίσκω

ἡται: bukag αἰτέω

γῆον: bukag ἄδω

εἰλκόςθη; aor. pas. -ἐλκῶ

συν-θείς; aor. ek. part. -σύντιθμι

εὐρήσετε : etork. -εὐρίσκω

INTXAURRONDOA

Bide-ertzean landatutako intxaurrondo batek ale asko ekarten zituari. Bidez joiazanak arrika egiten eutsen, intxaur-gale. Errukarriak esan eban: «Ene gizajoa, nire igaliakaz pöztuten dodazanengandik artzen dot esker gaiztoena!»

Ipuin au esker-tzarrekoen zentzagarri da.

OTSOA TA ARTZAINAK

Otso batek, artzainak euren txabolan ardi bat ja ten ikusirik, bertaratu ta ba-diñotse «Zelako zala parta, nik egingo ba'neu!»

ASTOA LEOI-NARRUAGAZ

Leoi-narruaz jantzitako asto bat danak leoitzat euken ta bai gizonak bai artaldeak beragandik igeska ebiltzan. Onetan aizeak gogortxu jo ta narrua erantzi eutsen. Orduan guztiak, ariñeketan, taket eta ma-kilka jorratu eben.

Ipuinak auxe darakus: ezjakin batzuk, kanpo-koai zeozer dirala iruditzen yakenak, euren barri-ke-tak agirian jartzen ditu.

BELEA

Belea gaixorik egoan ta esan eutsen bere amari: «Ama, erregutu egizuz jainkoak». Amak, barriz onelan erantzun eutsen: Jainkoen artean nor erruki-tuko da zugaz; nori ez dautsozu zuk aragirik ostu?»

Ipuinak auxe erakusten dau: Bizitza-aldian arerio asko dabezanak, bearrizan-orduan ez dabe adizki-derik aurkituko».

ANKISES

Ἄγκισος

Kapis eta Temiste-ren semea, Eneas-en aita. Abereak bazkatzen ziharduela, Ida mendian, Troia-tik hurbil, Afrodita-k ikusi eta maite izan zuen. Haren maite-a lortzeko Afrodita, Otreo Frigia-ko erregearen ala batzat aurkeztu zitzaion; Hermes-ek hura bahitu eta Ida-ko larreetara eraman bait zuen. Honelaxe batu zen harekin. Gero benetako nortasuna azaldu zion eta seme bat emango ziola iragarri; halere, inori ez esateko aginduz jainkosa baten semea zenik. Bestela Zeus-ek jakinez gero umetxoa birrinduko zuela. Baina, lartxo edanda zegoen jai batetan Ankises bere maitasun hartaz harrotu eta Zeus-ek, zigorrez, oinez tarri batez herren, eta beste batzuren ustez itsu utzi zuen. Lirno-ren aitatzakoa ere agertu ohi da Ankises.

Behinola Zeus-ek zaldi jainkozko batzu Tros-i bidali eta Ankises-ek, isilean, behorretara eraman zituen eta handik izan zituen sei moxaletatik bi Eneas i eman zizkion.

Tradizio ilun batek dioenez, Ankises-ek emazte hilkor bat izan zuen, Eriopis izenekoa eta beragandik alaba batzu izan zituen. Bat, nagusiena, Hipodamia. Troia jausi zenean Eneas-ek aita salbatu zuen eta ta triskantza hartatik, bidelagun eramanik. Ankises hil zen lekua-Troia-tik irteeran 80 urtekoa zen-batera batera, bestetzuk beste batera dakarte. Edo Idan behinola abere taldeak bertan zaindu bait zituen,

edo Palene penintsulan, Makedonian edo Akadian, Epi-
ron, erakusten zen haren hilobia, hego Italian edo
Sizilian edo Drepano lur-muturrean. Birgilio-k dio-
enez, Eneas-ek bere omenez hileta-joko batzu eratu
zituen, joko Troiarren jatorria. Jokook Erroman ospa-
tu ziren Inperio aldiraino. Beste batzuren esaneta-
ra, Eneas Lazio-ra heldu arte bizi izan zen, Mezenzi-
oren aurkako gudu aldian.


Hona Ankises eta Eneas ihes egin beharrari P. Virgi-
lius-ek bere poeman dioena:

(P. Virgillii Maronis "Aeneidos Liber II, vv.: 687 eta
hurrengoetan)

At pater Anchises oculos ad sidera lætus
Extulit et cælo palmas cum voce tetendit :
Juppiter omnipotens, precibus si flecteris ullis,
Aspice nos hoc tantum; et, si pietate meremur, 690
Da deinde auxilium, pater, atque hæc omina firma.
Vix ea fatus erat senior, subitoque fragore
Intonuit lævum et de cælo lapsa per umbras
Stella facem ducens multa cum luce cucurrit.
Illam, summa super labentem culmina tecti, 695
Cernimus Idæa claram se condere silva
Signantemque vias; tum longo limite sulcus
Dat lucem, et late circum loca sulphure fumant.
Hic vero victus genitor se tollit ad auras
Adfaturque deos et sanctum sidus adorat : 700
Jam jam nulla mora est; sequor et qua ducitis adsum.
Di patrii, servate domum, servate nepotem.
Vestrum hoc augurium, vestroque in numine Troja est.
Cedo equidem nec, nate, tibi comes ire recuso.

Dixerat ille; et jam per mœnia clarior ignis 705
Auditur propiusque æstus incendia volvunt.
Ergo age, care pater, cervici imponere nostræ;
Ipse subibo humeris, nec me labor iste gravabit.
Quo res cumque cadent, unum et commune periculum,
Una salus ambobus erit. Mihi parvus Iulus. 710
Sit comes et longe servet vestigia conjux.
Vos, famuli, quæ dicam, animis advertite vestris.
Est urbe egressis tumulus templumque vetustum
Desertæ Cereris juxtaque antiqua cupressus
Religione patrum multos servata per annos: 715
Hanc ex diverso sedem veniemus in unam.
Tu, genitor, cape sacra manu patriosque Penates;
Me, bello e tanto digressum et cæde recenti,
Attrectare nefas, donec me flumine vivo
Abluero. 720

Hæc fatus latos humeros subjectaque colla
Veste super fulvique insternor pelle leonis
Succedoque oneri; dextræ se parvus Iulus
Implicuit sequiturque patrem non passibus æquis;
Pone subit conjux. Ferimur per opaca locorum; 725
Et me, quem dudum non ulla injecta movebant
Tela neque adverso glomerati ex agmine Graii,
Nunc omnes terrent auræ, sonus excitat omnis
Suspensum et pariter comitique onerique timentem.



(Ankises eta Eneas-ek beretarrekin egindako ihes-aldia:-----)

("ENCICLOPEDIA DE LA MITOLOGIA"; Afrodiseo Aguado;) Madrid, 1967

PINUA

Egurgin batzuk piñu bat ebagiten ziarduen ederto ebagi be, piñutik beretik ataratako ziekaz Berak, negarrez, onelan esan eutsen deadarka: «Egia, gizon-eskuen bidez jotzen nauan aizkora gorrotagarri ba'yat, are geiago nire zurez egindako ziriak».

Oiñazea mingarriago izaten da etxekeogandik datorrenean, ezezagunegandik datorrenean baiño

ZALDIA TA MORROIA

Morroi batek zaldiaren garagarra ostu ta saldu egiten eban; zaldia, barriz, ondo garbitu ta igortzi. Zaldiak esan eutsen: «Egiaz mardo ikusi gura ba nozu, ez egizu saldu jateko dodan garagarra».

TXITXARRA TA IÑURRIAK

Negutean, eguzkiak diz-diz egiala, iñurriak euriak bustitako janaria legortzen eragoioen. Txitxarrak, go-seak egoan-da, jatekoa eskatu eutsen. Iñurriak erantzun: «Udan zergaitik ez zenduan jatekoa batzen?» Ta txitxarrak: «Ez nintzan alperkerian egoten, adizkideok; bai, ordea, gozokiro abestu». Ta iñurriak barrezka esan eutsoen: «Uda-aldian kanta, bai?, ta neguan dantza».

Ona ipuiñaren irakaskizuna: edozein arazotan, ez da ezertxo ere gitxietsi bear, gero negar ta arriskutan ez egoteko.

Iñurri bat egarritu ta iturrira joan zan. Urak eroanda, itotzeko zorian egoan. Usoak, au ikusita, zugatz-abar bat artu ta iturri-ondora bota eban, iñurriak bertan jarri ta bizirik urten egian.

Onen ondoren eiztari bat, kañaberak ipiñi ta usoa arrapatzeko gerturik egoan. Au ikusita, iñurriak eiztariari oiñetan usiki egin eutson. Min arturik, eiztariak kañaberak bota ta beingoan usoari iges egiten itxi eutson.

Ipuiñak auxe irakasten dausku: ongilleai esker-ona zor yakela.

BASERRITARRA TA BERE SEMEAK

Lurlangille batek, bizitza itxiteko agiñean egoala, bere semeak lugintzaren jakitun ipiñi gura ebazan. Deitu ebazan ta esan eutsen: «Ene semeok, laster nireak egin dau. Nire ondasunak mastegian ezkuta-ta datzaz. Antxe idoroko dozuez diranak».

Eurak bertan ondasuntegiren bat egoalakoan, eriotzaren ondoan, mastegiko soloan atxurketan asi ziran. Ta ondasuntegirik aurkitu ez. Baiña mastegiak, ederto landuta, mats ugariagoak emon eutsezan.

Ara, ipuiñaren esangura: bearra ondasuna da gizonentako.

Idi-buztarri batek burdi bat eroan. Ardatza karranka, ta atzerantza biurturik onelan esan eutsoen idiak: «Zu, lagun, guk zama guztia eroan ta zu intzirika?»

Onetara, gizon batzuk nekatuta dagozalakoaren itxurak egiten dakie, besteak neke-lorretan dagozala

ARTZAINA TA OTSOKOA

Artzain batek otso-kumea aurkitu ta azi egin eban. Otsoko egin zanean, alboko artaldeetan lapurretan egiten irakatsi eutson. Otsoko ikasiak esan eutson: Ara, zuk irakatsi daustazu lapurretan, bai ta kontuz zure ardiak ostu ez dagidazan.

II

Otsoak artzainak
ikusituen
etxola-barruan
arditxo bat jaten.

Hara joan eta
dio: "Zer istilu
galanta, honela
nik egingo banu!"

katulo

XXIV

O qui flosculus es Iuuentiorum,
 non horum modo, sed quot aut fuerunt
 aut posthac aliis erunt in annis,
 mallet diuitias Midae dedisses
 isti, cui neque seruus est neque arca,
 quam sic te sineres ab illo amari.
 'qui? non est homo bellus?' inquires. est:
 sed bello huic neque seruus est neque arca.
 hoc tu quam lubet abice eleuaque:
 nec seruam tamen ille habet neque arcam.

XXIV

Ene, Iubentiar loretxoa, ez
 oraingoena soil, baizik eta izan
 diren eta gero urte askotan
 daitezkeenena; Midas ezerez

honi, otsein-kutxa gabea baita,
 nahiago nukeen dirutza utzi
 bazenio ta ez hola onetsi.
 Galde zenezake: "ez al da galanta?"

Baiki, baina eder honek otseinik
 eta kutxarik ez. Horra aukera,
 ahantz hori eta utz alde batera:
 otsein-kutxarik ez harek, damurik.

α- ezezkoa.

Berez ez da preposizio banandu litekena; izenekin lo-
tzen da eta aditz elkartuak bakan ditu izenen aldean
Eurok direla eta, nola itzuli azalduko dugu hemen, di-
tuen itzulpen desberdinak eskainiz, itzultzaileak ka-
su bakoitzean egokien datorrena erabil dezan.

Ohar bedi lehenengo α hori (gitxiagotan bada ere) kol-
ektiboa dela, esaterako: ἄπαρ = dena osorik; ἀγάλακτες
= ugazanai, bularranai, ugazkide, titikide. Esangura fak-
titiboa duen adibide bat edo beste geroago aipatuko.
Ezezko zehatza: itzultzerakoan edo EZ- aurrizkiarekin
edo -EZ atzizkiarekin.

ἀδηλος = ezezagun = innotus

ἀδόκαστος = ezusteko = inopinatus

αὐρεῖ = ezorduan = a deshora

Ditekeena da EZKER (zurdo) hortan aurreko EZ- hori ha-
siera batetan aurrizkia izatea. Hain zuzen ere, KER =
recto-k kerrezka eman du = en línea recta. Orobat OKER-
en O- lehendabizi atzizki pejoratiboa izatea diteke-
ena da.

ἄπαίδευσία = jakineza

ἄχρηστία = gauzeza = inutilidad

EZGAUZA "cosa insignificante" da eta Metafisikan o-
so ongi dator "cosa negativa"-rako, ZERGAUZA "cosa
positiva"-rako datorren bezala.

(jarraitzeko)

94 **IZATEA**: "Sicut enim ab eo quod est sapere, voca-
tur sapientia; sic ab eo quod est esse, vocatur e-
ssentia, novo quidem nomine, quo usi veteres latini
sermonis auctores, sed iam nostris temporibus usi-
tato, ne deesset etiam linguae nostrae, quod Graeci
appellant οὐσία. Hoc enim verbum e verbo express-
um est, ut diceretur essentia." (1)

(De Civitate Dei, XII, 2)

Jakin hitzetik jakintza atera den bezalaxe; berdin
berdin, izan-etik izaera (esse-tik esentzia); hitz
berria, noski, latin hizkuntzaren lehenagoko idazle
ek ez arren, gure egunetan erabiltzen dena, gure hi-
kuntzari Grekoek οὐσία esandakoa peitu ez daki
on. Argi dago, berba hau aditzetik aterea da, esentz-
ia esan ahal izateko.

- Jakinaren gainean nago sapientia eta jakintza ez
direla guztiz bat. Halere, hurrengo datorrenaren ar-
gigarritzat erabiltzen da hemen eta "jakin"-etik
jakintza-sapere-tik sapientia legez-erraz ateratz-
earren erabili dut nik. Benetako interesa beste ar-
ren, essentia-ren, inguruan dabil eta hortxe saiatu-
ko naiz, esangura zehatzetik urrunduko gabe.

(1) Itzulpenean ongi eman badut ere, latinezkoan e-
rrata bat dago: "quo usi veteres latini..." atal-
txoa honela behar da idatzi: "quo usi veteres non
sunt latini..."

Grekozko εἶμί aditzak bazuen orainaldiko partitzi-
pioa: ἔν, οὖσα, ἔν, alegia; eta hortixek aterea da
οὐσία izena. Latinezko ESSE aditzak, ordea, ez zuen
horrelakorik, harik eta philosophoek X. gizaldian
ENS, ENTIS, eta XIV. ean ESSENTIA asmatu beharra izan
zuten arte. Hitz bioen philosophi-mamina alde bat u
tzita, argi dago grekoen antzera aritu zirela asma-
lanean.

Orixe-ren behinolako nor-izana, zer-izana eta horre-
lakoak esandakoaren argigarritzat edo utzirik, phi-
losophikoki nahiago dugu ESENTZIA. Hizkuntzaz Aitor
en semeak izanik ere, jakintza-arlo hortan Platon-
en azkazia gara.

(Argi dago Corripio-ren Etimologi-hiztegiak dakar-
tzan datak ez direla egiazkoak berbaren sortze-ur-
teari buruzkotzat hartzen baditugu; gaztelaniaz sar-
tu ziren urteari buruzkoak badira, berriz, ez dugu
beste iturririk kontrasta egiteko)

95 **IZATEA-SUBSTANTZIA**: "Itaque ut nos iam novo nomi-
ne ab eo, quod est esse, vocamus essentiam, quam ple-
rumque substantiam etiam nominamus: ita veteres qui
haec nomina non habebant, pro essentia et substanti-
a naturam vocabant".

(De moribus Manichaeorum, II, 2)

Gehienetan substantzia ere esaten diogun arren, i-
zen berriz, hau da, izanetik (esse-tik) esentzia esa-
ten diogun bezala, lehenagokoek, horrelako izenik
ez bait zuten, esentzia eta substantziaren orde-
z natura (izaera) esaten zuten.

El participio *essens* sería disparatado; los participios latinos, como los griegos, no se forman sobre infinitivos, sino que tienen su propio tema. Y el abstracto griego οὐσία no se forma sobre el participio femenino οὐσα, sino sobre el tema del participio en general, οντ-, común a los tres géneros: ante la l del sufijo -α, que desde Homero se usa para formar abstractos, la τ se convierte en σ, ocasionando así la desaparición de la ν anterior, cuya pérdida se compensa con el alargamiento de o en ου. Habría sido posible formar en latín un abstracto exactamente homólogo de οὐσία. El verbo *esse*, equivalente al griego εἶναι, tenía un participio *sons, sontis*; pero este participio, en su evolución semántica, había pasado a significar «culpable», «dañino», y ya no era sentido por los latinos como tal participio. Quedaba otra forma de participio del mismo verbo, *sens, sentis*, implícita en los compuestos *ab-sens, ab-sentis* y *prae-sens, prae-sentis*, de *ab-esse* y *prae-esse*. Sobre este participio habría podido formarse el abstracto *sentia*, como los compuestos *ab-sentia* y *prae-sentia*. *Sentia* habría sido, lingüísticamente, la homología exacta de οὐσία. Pero el hecho es que no se formó tal abstracto, y en su lugar se malformó *essentia*.

("Metafísica de Aristóteles"; V. Garcia Yebra; Edit.
Gredos, S.A., 1970, vol. I, XXXIV. orrialdea)



In provincia Gipuzkoa natus, Frater Iñaki Olabeaga, F.S.C., in populo Zarautz apostolatum exercens, exilio multatus est ob suum amorem erga linguam patriam. In provinciam Bizkaia venit, in Sestao.

Deinde in Ordinis domo vixit in Bilbao. Post Concilium Vaticanum, primo in ecclesia Sancti Antonii, in urbe Bilbao, coeperunt sacram lyturgiam lingua vasconum celebrare.

Frater Iñaki docebat fideles cantus sacros atque in celebratione Eucharistiae magna pietate chorum ducebat et ipse cantus seu versus quos lingua vasconum composuerat, ad modum orationis recitabat.

Cumque in hoc apostolatus genere diu versaretur, omnes eius laborem admirabantur.

Si eius versus legeris hoc animadvertes: magnum ei erga Deum et Dei Genitricem esse amorem. Hoc erat ei robori, spei atque laetitiae.

Hymnus

Te, Mater alma Nú-
minis,
Orámus omnes súppli-
ces,
A fraude nos ut dáemonis
Tua sub umbra prótegas.
Ob pérditum nostrum
genus
Primi paréntis crímine,
Ad ínclitum Matris de-
cus
Te Rex suprémus éxtulit.
Cleménte ergo pró-
spice
Lapsis Adámi pósteris:
A te rogátus Filius
Depónat iram vándicem.
Jesu, tibi sit glória,
Qui natus es de Vírgine,
Cum Patre, et almo Spí-
ritu,
In sempitérna sácula.
Amen.



Izaskun-go Ama

Jaungoiko¹Ama donea,
eskatzén dizugu apal,
deabru-iruzurretan
eman babes eta itzal.

²
Lehen Aitaren bekatuz
gure arraza galdurik,
Ama izan zinen bikainki
Goi-Erregeak jasorik.

Adan-en sème eroriei³
lagundu, arren, errukiz,
Semea haserre ez dadin
bengantzaz, zure eskariz,

⁴
Josu Birjinagandiko,
aintza Zuri eta Aitari,
Gogo Gurenarekin bat,
mendez mende. Hala bedi.